

Informazio

Agerkaria

222

2013ko
abuztua-iraila
agosto-septiembre
2013

Boletín

Informativo



Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuak
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya

ZIGOR KODEA ERALDATZEKO AURREPROIEKTUA

TU ABOGADO VE LO QUE TÚ NO VES

**CONSULTA CON TU
ABOGADO/A**



Reclamaciones,
Denuncias, Contratos,
Consultas legales, Divorcios,
Hipotecas, Despidos laborales,
Comunidades, Accidentes,
Jubilaciones, Herencias....

**Consulta
con tu abogado/a**



**ILUSTRE COLEGIO DE ABOGADOS
DEL SEÑORIO DE BIZKAIA**

**BIZKAIA JAURERRIKO ABOKATUEN
BAZKUN OHORETSUA**

Udan bizi izandako une atseginak gogoan ditugula, udazkenak gure bizimoduetara iheskortasunaren eta amaieraren kontzientzia itzuli ditu, gure inguruan gainbeheraren irudia sortzen duen aldaketa ederra eginez.

Malenkonía okrearen egoera honetan, urte judizial berriari hasiera eman diogu. Besteak beste, urte honetan gure Zigor Zuzenbidean, zuzenbideko esparrurik zailenean, aldaketak izango ditugu. Izan ere, esparru horretan Estatuak zigor- eta zehapen-gaitasuna gauzatu, garatu eta egikaritzen du, askotan, aldi baterako eta bermeekin bada ere, giza eskubideak eta gaitasunak (hala nola askatasun sakratua) murrizten dituzten ekintzekin.

Gaur egungo Estatu gobernua Zigor Kodea eraldatzeko aurreproiektua egin du. Izapidetzan akats tekniko-juridikoak izateaz gain, gure zuzenbideko oinarriko printzipioen aurkakoa izan arren, eta Konstituzioan ezarritakoa urratu arren, akats askoz ere kaltegarri eta arriskutsuagoa du, hots, eginkizun tekniko juridiko bat egiten du apurka-apurka ideologikoki kutsatzen ari den gizartean nahita eragiten den beldurra kontsolatzeko.

Zioen azalpenean agertzen den moduan, gizarte-alarma baretzeko egindako legeria da, eta krimen izugarriei buruzko informazioa komunikabideetan gehiegi erakusteak eragindako zigor eta mendeku nahiak asetzeko tresnak sortu nahi ditu.

Komunikabideen jarduera makur eta etekintsu horren eraginez, gizartearen zati batek -beldurrik bultzatuta eta agian larriagotzat dituzten arriskuen aurrean babesteko asmo hutsarekin-, justiziaren kontzeptuaren ideia okerra garatzen du, printzipio zaharkituetan oinarrituta dagoena; printzipio horiek zigorrak gogortzen dituzte eta zigortuei gizarteratzeko eta birgaitzeko aukera guztiak kentzen dizkie. Printzipio horiek guztiz kontserbadoreak dira, azken mendeetan zigor zuzenbideak izan duen bilakaeraren aurkakoak, giza eta gizarte garapenari ezer gehitzen ez diotenak.

Gizartea guztiz beldurtuta dago krisi ekonomiko beldurgarri honetan bizirik irauteko aukerarik izango ote duen, eta horrez gain, beste batzuek delituak eginda eragin ahal diguten kaltearen aurrean ere beldurra du. Baina ahaztu egiten da hezkuntza- eta osasun-ahaleginak garrantzia duela prebentziorako eta pertsonen berreraikitze psikologiko, emozional, intelektuala eta lanerako egin behar den eginkizunari begira. Pertsona horiek garai batean delitu-jokabideengatik kondenatu arren, azkenean gizarterako berreskuratu egin behar dira, haiek ere, gu bezala, gizarteko kide baitira.

Tras los intangibles recuerdos de instantes placenteros vividos durante el verano, el otoño devuelve a nuestras vidas la conciencia de fugacidad y término mediante la bella transformación decadente de nuestro entorno natural.

En ese estado de ocre melancolía afrontamos el comienzo del nuevo año judicial que estará marcado, entre otras cosas, por cambios en nuestro Derecho penal, el ámbito más gravoso del derecho, por ser aquel en el que el Estado ejerce, desarrolla y ejecuta su capacidad punitiva sancionadora, con acciones que, en numerosas ocasiones, restringen temporalmente aunque con garantías, derechos y capacidades humanas, tan sagrados como la libertad.

El actual gobierno del Estado ha realizado un Anteproyecto de reforma del Código penal que, además de adolecer de defectos técnico-jurídicos de tramitación, además de contrariar los principios básicos de nuestro Derecho, además de vulnerar, incluso, lo preceptuado en la Constitución, adolece de un defecto mucho más pernicioso y peligroso cuando subyace en la intención legislativa y que es el de realizar una labor técnico jurídica para consolar el miedo que, intencionada y previamente, se genera en una sociedad a la que poco a poco se va contaminando ideológicamente

Se trata, tal como se refleja en su Exposición de Motivos, de legislación realizada para calmar la alarma social y dirigida, así, a crear los instrumentos que permitan satisfacer los deseos de castigo y venganza generados por el profundo miedo que produce en la sociedad la sobreexposición y explotación mediática de la información sobre crímenes terribles.

Esta perversa y lucrativa actividad de los medios de comunicación genera que parte de la sociedad -acuciada por el miedo y con la única intención desmedida de protegerse frente a peligros que quizá perciben como más graves de que son-, desarrollen una idea del concepto de Justicia basada en principios obsoletos que endurecen las penas, castrando así toda posibilidad de reinserción y rehabilitación de los penados, principios, que son tremendamente conservadores, contrarios a la evolución del derecho penal de los últimos siglos y que nada aportan al desarrollo humano y social.

La sociedad, que ya vive atemorizada por las dudas sobre la propia posibilidad de supervivencia básica en un tiempo de crisis económica brutal, recibe, además, el miedo al daño que otros pueden causarnos mediante la comisión de delitos, olvidando la importancia del esfuerzo educativo y sanitario para la prevención y el necesario trabajo de reconstrucción psicológica, emocional, intelectual y laboral de las personas, en un tiempo condenadas por comportamientos delictivos, para resultar finalmente recuperados para la sociedad a la que, como nosotros mismos, pertenecen.



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**
**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Decano / Dekanoa
Nazario Oleaga Páramo

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Colaboradores / Laguntzaileak

César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzarraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

Fotografía / Argazkigintza
E. Moreno Esquivel

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987

**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**



**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

2013ko abuztua-iraila
agosto-septiembre 2013

06

INFORMACIÓN INFORMAZIOA

Prisión permanente revisable
vs. Mediación penal
*Berrikusteko moduko betiko espetxeratzea
vs. Zigor arloko bitartekaritza*

Otra reforma más del Código Penal
Zigor kodearen beste eraldaketa bat



06

10

OPINIÓN IRITZIA



10

12

NOTICIAS BERRIAK



13

13

EL YANTAR OTORDUA



14

14

JORNADAS JARDUNALDIAK

¿Qué está haciendo el Departamento de
Justicia por el uso del euskera? ¿Qué
podemos hacer los abogados?
*Zer egiten ari dira justizia sailetik euskara
sustatzeko? Abokatuok zer egin dezakegu?*

18

BIBLIOTECA COLEGIAL BAZKUNEKO LIBURUTEGIA



26

STEVE KARLE

28

22

NOVEDADES LEGISLATIVAS LEGEINTZA BERRITASUNAK



26

SUPLEMENTO CULTURAL KULTUR ERANSKINA

BERRIKUSTEKO MODUKO ESPETXERATZE IRAUNKORRA VS. ZIGOR-ARLOKO BITARTEKOTZA

Iker Zeballos Maudu, BIABOko abokatua



Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duen Lege Organikoaren Aurreproiektuan zigor berria sartu da, “berrikusteko moduko espetxeratze iraunkor” izenekoa (aurrerantzean BEI).

Gai berritzailea da, betiko espetxe-zigorra baita, nahitaez berrikusten dena eta betekizun gogorak dituen zigorra gauzatzea eteteko, baldintzapeko askatasunerako, espetxeko hirugarren gradurako (erregimen irekia) eta irteera baimenentarako. Hori dela eta, Zigor Kodearen 33.2. a) artikuluan ezin da mota horretako zigorra jaso, ez baita bost urtetik gorako espetxe-zigor larria, betiko espetxe-zigorra baino.

Aztertu beharko litzatekeen funtsezko gai bat BEIren konstituzionaltasuna da. Ildo horretatik, Espainiako Konstituzioaren (aurrerantzean EK) 9.3 eta 25.1 artikuluetan jasotako legezketasun printzipioari erreparatuz gero, arau-haustea eta zehapenak tipifikatzerakoan eskatutako arau-lerrunari buruzko berme formal bat izateaz gain, izaera materialeko bermea ere badu, segurtasun juridikoaren printzipioari lotuta, zehaztasuna eta ziurtasuna eskatzen dituen. BEI zigorra berme material horren aurkakoa da, zigorraren gehiengo muga ez baita zehazten. Herritarrak aurretik jakin behar du zein diren bere ekintzek izan ditzaketen ondorioak, eta nahitaezko berrikuspena jaso arren, zehaztugabetasun hori ez da ezabatzen. Arazo hori ez dago iraupen luzeko espetxe-zigorretan, horietan aurretik ezarritako gehiengo muga adierazten baita.

Bestalde, EKren 25.2 artikuluan jasotakoaren arabera, “Zigor askatasun-gabetzaileek eta segurtasun-neurriek be-

rriztea eta gizartean birsartzea dute helburu, eta ezin daitezke lan bortxatuak izan (...)”. Klausula hori osorik ezin da parekatu Europar Batasuneko beste estatu kide batzuetan dauden konstituzioekin, horietan ere betiko espetxeratzea edo espetxeratze iraunkorra araututa baitago. Horren adibidea da Italiako 1947ko Konstituzioaren 27. artikulua-ren 3. paragrafoa; horren arabera, “zigorrak ezin dira izan gizatasun senaren aurkako tratuak eta kondenatua berreztea izan behar dute helburu”. Manu horretan ez da gizartean birsartzea aipatzen zigorraren helburu moduan. Horrek erakusten digu EKren 25.2 artikulua ñabardura bereizle eta oso garrantzitsuak dituela.

Puntu horretan, aurretik aipatu dugun zehaztugabetasunari helduko diogu berriro; izan ere, BEI zigor zehaztugabea izateari utzi ahal dio ‘berrikusteko modukoa’ terminoa kentzen badugu eta herritarrak gainerako urte guztiak espetxean egiten baditu. Baina EKren 25.2 artikuluan argi eta garbi esaten da zigor askatasun-gabetzaileek gizartean birsartzea dutela helburu. Hori aipatzen du Auzitegi Gorenak mota honetako epaietan:

- 101/1998 AGE, urtarrilaren 30ekoa: “gizabanakoaren birgizarteratzearen aurkakoa den guztia, zigorraren azken xedea lausotuz edo faltsutuz, narioa izango da ikuspuntu konstituzionaletik, eta kasuan kasuko erabaki judiziala arteztea eskatuko du”.

- 343/2001 AGE, martxoaren 7koa: “Gure ustez, espetxe-legerian ezarritako mekanismoak behar den moduan konbinatuta erabiliz gero, luzerari erreparatuta biziarte-

ko kartzela-zigorrekin parekatu daitekeen zigorraren ondorio zitala konpondu daiteke, eta hori konstituzio-printzipioen aurkakoa izango litzateke, jasangaitza eta umiliagarria izateaz gain birgizarteratzeko aukera guztiak galduko litzuzke eta”.

Guk pentsatzen dugu zigor zuzenbideak guztiarekin ahal duela, eta zigorrak gogortuta arazoak konpontzen direla, baina ez da horrela. Zigor zuzenbideak, eta zehatz esanda, zigor prozesuak jurisdikzio horri dagokiona konpondu ahal izango du eta konpondu beharko du, baina ezingo ditu konpondu, adibidez, prebentzio-politikekin konpondu beharko liratekeen auziak; politika horiek zuzenean administrazioari dagozkio, eta administrazioak eskumena du horiek eraginkor bihurtzeko.

Zigor berria sortu beharrean (BEI), zigor-arloko bitartekotza martxan jarri beharko litzateke, gatazkak ebazteko mekanismo alternatibo horrek hainbat xede betetzen laguntzen du-eta, hala nola birgizarteratzea. Mekanismo horrek abagune printzipio adu oinarri. Printzipio horren kontzeptuari dagokionez, ikus dezagun MORENO CATENA, V. autoreak ematen digun definizioa: “Atal handi honen barruan sartu nahi dira akzio penala egikaritzeko legiti- matuta dagoen akusatzaile publikoak akzio penala egikaritzeko abstenitzea baimenduta duen kasu guztiak, legez tasatutako arrazoiarekin edo ez, edo akzio penala legeak ezarritakoa zorrotz bete gabe egikaritzeko baimenduta duten kasu guztiak”.

Batzuen arabera, bateraezintasuna dago legezketasun printzipioaren eta abagune printzipioaren artean, baina bateraezintasun hori argudiatzen da ona ez den oinarri bat abiapuntu hartuta, hots, akzio penala nahitaez egikaritzearen eta legezketasun printzipioaren arteko lotura. Lotura hori ez dago, akzio penalaren nahitaezketasun araua ez baita ez oinarritzko eskubidea eta ez du izaera absoluturik, hala ere, legezketasun printzipioak konstituzio lerruna du. Gainera, akzio penala egikaritzeko nahitaezketasuna araua denez eta ez printzipioa, salbuespenak onartzen ditu, eta horien artean abagune printzipioa sartuko litzateke, eta ondorioz, baita zigor-arloko bitartekotza ere, printzipio horretan oinarritzen baita.

Nazioarteko erakundeek (Europako Kontseilua, Europar Batasuna eta Nazio Batuak) zigor-arloko bitartekotza gehitzea bultzatzen duen araudi asko sortzen dituzte. Hori dela eta, albait azkarren arautu beharko litzatekeen gaia da.

Prozedurari dagokionez, gatazka autokonpositiboak ebazteko metodoa da, hau da, gatazkaren konponbidea alderdiek erabakitzen dute. Metodo heterokonpositiboetan, ordea, hirugarren batek ebazten du.

Prozedura honetan, bitartekariaren irudia giltzarria da, bere eginkizuna baita alderdiak hurbiltzea erabaki bat lor dezaten. Horrez gain, ezin dugu ahaztu bitartekariak, bere eginkizunak behar den moduan egiteko, gai horri buruzko trebakuntza berezia beharko duela.

Zehaztu egin behar da zigor-arloko bitartekotza-prozedura guztietan printzipio batzuk bete behar direla. Besteak beste, hauek nabarmenduko ditugu:

- *Borondatezkotasun printzipioa*: horrek esan nahi du edozein alderdik uko egin ahal diola prozesua hasteari zein behin hasita aurrera egiteari.

- *Isilpekotasun printzipioa*: prozedura osoan oinarri aizan behar da. Modu horretan, saihestu egingo da epailea kutsatu ahal izatea alderdietako batek zigor-arloko bitartekotza jarraitzeari uko egin eta auzia auzitegietan ebatzi behar izanez gero.

- *Malgutasun printzipioa*; horri esker, prozedura kasu zehatz bakoitzera egokitu daiteke. Gehiegizko arauketa egingero, hori zaila izango litzateke.

Zigor-arloko bitartekotza motei dagokienez, honela bereiz daitezke:

1) *Negoiazio motari erreparatur*: zigor-arloko bitartekotza zuzena (aurrez aurre) eta zeharkakoa (aurrez aurrekorik gabe).

2) *Zigor-arloko bitartekotza zein une prozesalean garatzen den kontuan hartuta: prozesalaren aurrekoa, prozesala eta postsententiam*.

Prozeduraren garapen-faseei erreparatur gero, prozedura ondo egituratuta dagoela ikusiko dugu eta, gainera, epailearen lana erraz dezakeela, hala denean, alderdiek lor dezaketen erabakia dela bide.

Beraz, prozedurak onura ugari izan ditzake hainbat subjektuentzat: biktimak, erruztatua eta gizartea. Askotan xede horiek erdiestea zaila izaten da legea huts-hutsean beteta edo legea gogortuta, BEI honekin gertatu den moduan.



ZIGOR KODEAREN BESTE ERALDAKETA BAT

Garazi Arraibi. Abogada y doctoranda en Derecho Penal.

1995eko Zigor Kodea, indarrean jarri zutenetik, hogeita bost aldiz aldatu dute. 15/2003 eta 5/2010 lege organikoen bidez egindako eraldaketak esanguratsuenak izan dira, artikuluko kopuru asko aldatu zituzten eta.

Gaur egun Zigor Kodearen beste eraldaketa aurreproiektu bat izapidetzen ari dira, 2013ko apirilekoa. Aurreproiektu horrek Ministroen Kontseiluak 2012ko urrian onetsitako aurreproiektuaren alderdi batzuk aldatzen ditu.

Zigor Kodea aldatu zuen azken lege organikoa 2012ko aurreproiektua baino urtebete eta hamar hilabete lehenago jarri zen indarrean. Hori dela eta, beste aldaketa hau egitea, oso garrantzitsua gainera, ez da oso argia. Zioen azalpenen "bidezko hartzen diren ebazpen judizial auresangarriak bermatzeko beharra" aipatzen da hogeita seigarren eraldaketa justifikatzeko.

Etengabeko aldaketan aurrean kritika asko entzuten dira. Adibidez, Fiskaltzak 2012ko aurreproiektuaren inguruan txostena egin zuen. Bertan adierazi zen Zigor Kodeak eraldaketa asko izan dituela eta horrek segurtasun juridikoaren printzipioari kalte egin ahal diola, ezin baita jakin zein izango den boterearen jarduna zuzenbidea aplikatzean. Horrez gain, legezotasun printzipioan ere eragina izan dezake, printzipio horrek berme moduan jasotzen baitu "legearen aurkako jarrerak eta kasuan kasuko zehapenak arauen bidez zehazteko eskakizuna".

Edukiaren analisia egin aurretik, garrantzitsua da azpimarratzea Francisco Javier Álvarez Zigor Zuzenbideko katedradunak defendatzen duela aurreproiektuaren izapidetak ez duela jarraitu horretarako ezarritako legezko bidea. Egile horren arabera, 2013ko aurreproiektua Estatu Kontseilura igorri da alderdi berritzaile askorekin (2012ko aurreproiektuan ez zeudenak), eta horien inguruan Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak ez duela txostenik egin. Katedradun

horren arabera, horrek eragin dezake txosten horretan jaso ez diren gaiak deuseztatzea eta Gobernuaren eta BJKNren arteko eskumen-gatazka bat. Beraz, izapidetzan ere kritikak jaso dituen aurreproiektuaren aurrean gaude.

Artikulu labur honetan 2013ko aurreproiektuaren aldaketa esanguratsuenetako batzuk jasoko ditugu. Zigor Kodearen hiru liburuetan eraldaketak proposatzen dira: zati orokorrean aldaketa handiak daude, zenbait aldaketa delitueta eta zigorretan, eta III. Liburua bertan behera uzten da falta batzuk kendu eta beste batzuk delitu arin bihurtu baitira.

Zati orokorra aztertuz gero, esan daiteke aldaketa deigarrienetakoa dela berrikusteko moduko espetxeratze iraunkorra gehitu dela zigor larri moduan 140. artikuluko erailketa delitu eraldatuan jasotako baldintza batzuk gertatzen direnean, edota Erregea edo printze jaraunlea hiltzen denean edo erakunde terrorista bateko kide edo laguntzaile izanda hiltzen denean, atzerriko estatuburu bat edo itun batek babesten duen pertsona Espainian hiltzean, edo gizateriaren aurkako delitueta eta genozidioetan sexu-erasoak egiten direnean edo 149. artikulura bildutako lesioak gertatzen direnean.

Abokatzaren Kontseilu Nagusiaren iritziz, berrikusteko moduko espetxealdi iraunkorra ia-ia konstituzioaren aurkako da, Konstituzioan jasotako birgizarteratze eginkizunaren aurkako delako; betetzearen muga finkatzen ez denez, aipatutako lege-gorputzaren 10, 15, eta 25. artikuluen aurkako da. Hala ere, Aurreproiektuaren zioen azalpenaren arabera, zigor hori ez da birgizarteratze printzipioaren aurkako, aldizkako berrikuspen judiziala definitzen baitu, bi urterik behin (kondenaren zati bat bete ondoren, 25 eta 35 urte bitartean), berme moduan.

Kasu horietan, 78 bis artikuluko berri hiru garren gradura aldatzea arautzen da. Gutxienez 18, 20 edo 22 urte beteta daudenean gertatuko da, berrikusteko moduko espetxealdi iraunkorren zehapena jaso duen delituarekin batera egindakoen zigorren iraupenaren arabera. Eteteko, beharrezkoak izango dira ondoz ondoko 25 eta 30 urteko espetxealdiak.

Segurtasun-neurriei dagokienez, orain ez da ezartzen neurria delitu horri aplikatuko litzaiokkeen zigorra baino txikiagoa izan behar denik. Bestalde, segurtasun-neurrietan eragina duten aldaketekin jarraituz, zaintzapeko askatasuna delitu askotara hedatzen da. Konfiskazioaren irudiak ere antzeko hedapena izan du, horren arauketa sistematizatu egiten da eta delitu guztietarako izaera orokorrekin garatzen da.

Delituak behin eta berriro egiteak zigorra larriagotzean eraginik ez izatea saihesteko, etengabeko delitua murriztu egin da denboran eta espazioan hurbil dauden jarreraren kasuetara. Kasu horietan, egindako arau-hauste larrienarengatik egokituko litzatekeen zigor zehatza baino handiagoa eta arau-hauste guztien zigorren batura baino txikiagoa ezarriko da. Bestalde, sexu-delituen kasuan ez da aplikatuko etengabeko delitua.

Beste berrikuntza bat da baldintzapeko askatasuna 2013ko apirileko testuan araututa dagoela zigorra etete moduan, eta epea ezin da izan eteterako finkatutako denbora baino laburragoa. Askatasuna lortu eta berriro ere delitua egiten badu, subjektua espetxera eraman ahal izango dute berriro kondena betetzen jarraitu dezan, kondena eten zitzaion unetik aurrera. Bestalde, baldintzapeko askatasuna lor dezakete espetxean lehenengoz sartzen direnek, betiere, zigorra hiru urtetik gorakoa ez bada.

Etetearekin jarraituz, aurreproiektuaren arabera, delitua lehenengoz egitearen eta zigor guztien batura bi urteko espetxealditik gorakoa ez izatearen betekizunak bete ez arren,



“salbuespen moduan” banaka bi urteko espetxealditik gorakoak ez diren zigorrak eten ahal izango dira “espetxeratuaren inguruabar pertsonalek, gertaeraren izaerak, espetxeratuaren jarrerak, eta zehazki, egindako kaltea konpontzeko ahaleginak hala gomendatzen dutenean”. “Salbuespen moduan” terminoarekin sor daitekeen problematika planteatzen da, eta zalantza sortzen da zergatik egiten dion aipamen soil-soilik espetxe-zigorri eta ez askatasunaz gabetzen duten zigor guztiei, José Luis Manzanaresek *Comentarios a la parte general del Código Penal conforme al nuevo anteproyecto de la Ley Orgánica* artikuluan jasotzen duen moduan.

Kasu horretan, zigorra eteten bada, isuna edo gizartearen-tzako lanak ezarriko dira (bi neurri horietako bat, bitartekaritzaren bidez alderdien arteko adostasunaren bidez, epaileak ezar dezake etetea baldintzatzeko). Epaileak etetearen inguruan epai berean ebazpena ematea aurrekusi da, eta hala izan ezin bada, irmotasuna adierazi ondoren, al bait arinen.

Era berean, zigorra ordeztearen edukia aldatu da atzeritarren kasuan. Urtebeteko espetxealdia baino handiagoak diren zigorrak kanporatzearekin ordeztuko direla arautu da. Zigorra hiru urteko espetxealditik gorakoa denean, osorik edo zati batean beteko da, eta behin zati bat beteta, gainerakoa kanporatzearekin ordeztuko da.

Zigor aurrekarietarako, Europar Batasuneko beste estatu batek ezarritako kondenak hartuko dira kontuan, eta horiek ezerezteko prozedura sinplifikatu da.

2010eko eraldaketaren puntu garrantzitsu bat Zigor Kodean pertsona juridikoen erantzukizuna sartzea izan zen. Arauketa horrek ere aldaketak izan ditu. Aurreproiektuan zehatz zehaztu dira enpresaren, zuzendarien eta egitezko edo zuzenbideko administratzaileen prebentziorako prozeduren eta kontrolen betekizunak.

II. Liburuari dagokionez, artikuluko batzuk aldatzeaz gain, delitu gehiago sartu dira, hala nola derrigoritutako ezkontza, jazartzea indarkeriarik gabe, beste baten intimitate pertsonalari eraso egiten dioten irudiak zabaltzea irudiak haren baimenarekin lortu arren, eta zigorrak eta kautela-neurriak edo segurtasun-neurriak betetzen direla zaintzeko erabiltzen den kontrol-gailua manipulatzeko.

Delitu askoren zigorrak gogortu egin dira, eraiketa delituan ikus daitekeenez. Kasu horretan, graduaren goragoko zigorrarekin zigortzen dira 550. artikuluko atentatu delituztat har daitezkeen egitateak edo 140. artikuluko betekizunen bat gertatzen denean (laster zehaztuko da). Bestalde, eraiketa arautzen duen 139. artikuluari laugarren inguruabarra gehitu zaio, zehazki, beste delitu bat egitea errazteko edo beste delitu bat aurkitzea saihesteko hiltzea.

Eraiketa denean eta biktima 16 urtetik beherakoa edo zaurgarria denean, eraiketa egileak biktimaren sexu-askatasunaren aurka egindako delitu baten ostean datorrenean, egilea erakunde edo talde kriminal bateko kidea denean edo egilea pertsona bi edo gehiago hiltzeagatik kondenatzen denean, berrikusteko moduko espetxealdi iraunkorra ezarriko zaio, 140. artikuluan jasotzen den moduan.

Era berean, larriagotu egin da legez kontrako atxilotzearen eta bahiketaren zigorra atxilotutako pertsonaren kokapena esaten ez denean, eta 20 urtera arteko espetxealdia izan daiteke bahiketa denean. Astungarria da biktima adingabea edo desgaitasuna duen pertsona denean edo sexu-motibazioa dagoenean.

Berriro ere, sexu-delituak larriagotu egin dira. Aurreproiektuaren arabera, sexu-adostasunerako gutxieneko adina 15 urte da eta delituztat hartuko da adin horretatik beherakoarekin izandako sexu-izaerako edozein egintza; edonola ere, ez da erantzukizunik leporatuko adinez eta garapen edo heldutasun mailaz antzekoak diren pertsonen kasuan.

Besteak beste, larriagotu egin da norbait bizi den etxean lapurtzearen delitua, industria-jabetzari lotutakoa eta basosuteei lotutakoa. Hala ere, eta faltak kendu direla kontuan hartuta, delitu batzuk, hala nola ebasketak, maula, iruzur elektrikoa eta kalteak larritasun gutxiko delituak izango dira ebatsitakoaren edo kaltetutakoaren balioa 1000 eurotik gorakoa ez denean (gaur egungo Zigor Kodean 400 euroko kopurua agertzen da).

Bestalde, bidegabeko eralditzea funts publikoen administrazio desleialaren modalitate bat da. Administrazio publikoaren aurkako delitu hori eraldatu egin da, oinarritzko tipoan espetxe zigorra txikitu duelako eta urtebeteko eta lau urte bitartean kokatu duelako (lehen hiru eta sei urte bitarteko espetxealdia zen). Astungarriak ere gaur egungo Zigor Kodera bildutako zigorra baino txikiagoa du, eta zigor bera da soil-soilik ebatsitakoaren balioa 250.000 eurotik gorakoa denean; gainerako kasuetan, zigorrak bi eta sei urte bitarteko espetxealdiak izango dira, gaur egun dagoen lau eta zortzi urte bitarteko espetxe zigorraren ordeiz. Zigorrak murrizteaz gain, legegariak egokituko litzatekeen zigorra baino gradu bat edo bi txikiagoa ezartzeko aukera ezarri du, egindako kaltea osorik konpontzeagatik edo agintariekin lankidetzan aritzeagatik.

Amaitzeko, III. Liburua kendu da, eta falta batzuk II. Liburura igaro dira delitu arin moduan. Horren justifikazioa da epaitegietan auzi txiki gehiegi daudela. Hori dela eta, zigor agirak merezi dutenak mantendu dira, eta delitu arin moduan zigortuko dira, isun-zigorrekin.

Laburpen moduan, esan daiteke zigorrak gogortzea proposatzen duen aurreproiektuaren aurrean gaudela eta horrek kondenatua birgizarteratzea arriskuan jartzen duela, guztiz ezinezko bihurtzen duela ez esateagatik. Gaur egungo mugak, 30 urteko espetxealdia eta 40 urteko delitu jakin batzuen kasuan, mehatxua dira espetxeratuen osasun fisiko eta psikorako, eta beraz, berrikusteko moduko espetxealdi iraunkorra aplikatzeak ez du zentzurik.

Proposatutako aldaketak irakurtzean ezin ditugu kasu triste asko burutik kendu, hala nola Marta del Castilloren edo Bretón neba-arrebena, baina legeak ezin dira ikuspegi biktimistatik egin. Izan ere, kasu horretan erraza izango litzateke mendeku instituzionalizatua egitea. Badirudi aurreproiektuak ordaintze-eginkizuna edo prebentzio orokor positiboa hautatu duela, neoerretribuzionismo moduan, herritarrak “lasai” utziz zigorrak gogortuta, gizarteak hori eskatzen duela ulertu baita. Ezin da ahaztu zergatik aldatu den Zigor Kodea: “bidezkotzat hartzen diren ebazpen judizial auresangarriak bermatzeko beharra”. Agian justizia ideia horren inguruan gogoeta gehiago egin beharko litzateke.



JOSE LUIS CUETO BULNES

– LEGELARI JAKINTSUA

Manu de Vicente Unzaga, Hirigintzako abokatua

José Luis Cuetok oraintsu utzi gaitu, eta hirigintza-zuzenbidearen esparru desordenatua ilunpetan geratu da. Galera horren aurrean sentitzen dugun kommozioak ez du eragotzi behar berak merezi zituen afektua eta aitoren orokorra jendaurrean erakustea.

Hirigintzako eta zuzenbideko aristokrata zen, arauaren irakurketa lauari ihes egiten ziona. José Luis Cueto azterketaz eta gogoeta analitikoaz gozaten duen gutxiengo tribu horretakoa izan zen, jakinduria juridiko asko pilatu zuen, eta denborarekin eta berak nahi ez bazuen ere, ziurrenik espezialitate horretako exegeta aitortuena bilakatu zen. Exegeta probokatzaile eta bikaina zen, bai, ageriko errealitatea ikuspegi angeluar eta kritikoarekin bihurtzeko gai. Interpretazio berritzaile eta heterodoxoak sortzen zituen etengabe, eta batean baino gehiagotan benetako hirigintza egikaritzen duten bulegoetan egonezina eragin zuen.

Gogorarazi behar dugu, legelariaren planteamenduak esparru juridikoan –hirigintzaren kasuan oso kaltetua



dagoena ikur bateko eta besteko interes politikoak direla bide–aurkaratzen –edo arbitratzen– zitutzen funtzionario askok –epaileak barne– mahai gainean Euskal Autonomia Erkidegoan indarreko hirigintza-araudiari buruz dagoen konpilazio bakarra izaten zutela, hain zuzen ere, Cuetok eta “Ful”-ek egindakoa¹. Era berean, gogorarazi behar da, handikeria guztiak alde batera utzita, Cuetok ez zuela bere lana “ondare bihurtu” nahi izan eta modu eskuzabalean elkarbanatu zuela, inprentara bidali aurretik, interesa agertu zuten eragile guztiekin.

Izan ere, erudizioaren bere gaztelu misteriozutsutik, hildako legelaria benetako iurisconsulto moduan aritu zen hirigintza-zuzenbideko foro autonomikoetan. Eta bikain aritu zen jarduera horrek barruan hartzen dituen alderdi guztietan, batzuetan aholkuak eskainiz eta batzuen eta besteen galderei erantzunez, besteetan hirigintza-zuzenbideko askotariko printzipioak ukitu zientifikoarekin eta begirada zorrotzarekin antolatuz eta koordinatuz,

¹Fulgencio Gutiérrez Solana, *bere alter egoa, elkarrentzako modukoak, txanpon bibliografiko eta profesional beraren bi aurpegi banaezinak*.

eta azkenik auzitegietan ordezkatzuz edo zuzenbideak eta jurisprudentziak argitzen ez zituzten gaien inguruko irizpenak eginez. Hori guztia jardura akademiko oparoa alde batera utzi gabe hala nola Hirigintza Zuzenbidearen Aldizkarian, INAPen eta, batez ere, HAEEn. Azken egoitza horretan emandako ikastaroak ez dituzte erraz ahaztuko gaur egungo hirigintzako profesionalek, legelariak izan zein ez, haien trebakuntzan oso lagungarria izan baitzen.

Erudizioa irudikatzeke, aurpegi zakarreko irudi bat erabiltzen da, esku batean liburu bat eta beste batean makila bat dituela, berak daukan agintaritzaren eta lanak aztertu, zuzendu eta interpretatzeko duen pribilegioaren ikur. Agian horregatik, jakintsuak, oro har, ez du barrerik eragiten, esparru akademikotik ateratzen ez den ekosistema natural batean bizi baita. Cueto, aldiz, errealtateari umore "zinikoz" aurre egiten zion jakintsua izan zen. Umore hori koraza moduan erabiltzen zuen eta txantxa laburrak egiten zituen eguneroko kaskarkeriari eta zoritxarrari buruz, eta nahi gabe ere, barre-algarak ateratzen zizkigun.

Eta Cueto ez zen abokatu otzana, jokabide atsegin eta adiskidetzalea izan arren beti. Cueto abokatuak, itxurari leial izan gabe, lanbidean babesten zituen interesak zorrotz bete zituen, jakin baitzekien –abokatu guztion dakigun bezala– egia eta arrazoi osoa mahai gainean ahalegin eta zorrotzasun gehien jartzen dituenaren alde jartzen diren ameskeriak direla.

Eta, bai, bokaziozko abokatu izan zen, eta bere aholkua nahi zuten guztien eskura egon zen beti, kontuan hartu gabe gaiaren zenbatekoa, zailtasuna, eta bezeroaren nortasuna edo egoera kontuan hartu gabe, hots, diruduna zein txiroa izan, publikoa zein pribatua. Administrazioek zein administratuek agindutakoak gogo eta dedikazio berberekin jorratu zituen, aurkari erronkariaren eta ahaltzuaren aurpegiera galdu gabe.

Cueto, kasu guztietan, lankide akatsik gabekoa izan zen, iragazgaitza intimitateari eta ezkutuko ezagutzei zegokienez, eta aldi berean, oso hurbila, arratsaldearen amaieran eztabaidatzen zituen aurrez aurreko interesez jardutean... bat-etortzearen aurrean erreparoko zeudenean, probokazio bitxi bat egiten zuen: "oraintxe esan didazuna ez didazu errepikatuko kubata baten aurrean...."

Ezagutza-iturrietatik edaten dutenengan ontasun ukitu bat geratzen da, eta horri esker, jenio bizikoengandik bereizten dira; azken horiek jokaera asaldatu eta oldarkorra izaten dute, segurtasun gabezia mozorrotzeko ahaleginean. Eta Cueto, sendotasun kultu eta onbera izanda, ez zen arau horren salbuespena:

Humanista handia galdu dugu, ilustratua eta bihurria, intelektual ongilea, legelaria letra larriz idatzita, eta guztiaren gainetik, lagun kutuna.

IMQ Abogados

Tu salud

La salud lo es todo y con IMQ tienes todo para cuidarla

Tú eres nuestra razón de ser. Por eso, tenemos para ti un seguro médico con todo lo que necesitas:

- La red sanitaria más extensa y la tecnología de vanguardia, sin esperas
- Completa cobertura sanitaria
- Seguro de accidentes para el titular de la póliza desde sólo 5,13 €/mes*
- Descuentos: 4% por pago anual y 5% para 5 o más beneficiarios
- Importantes ventajas fiscales

Exclusivo abogados desde
45,04 €/persona/mes


Tu seguro médico

902 311 902 agencia@imq.es www.imq.es

* Es necesaria la contratación del seguro de accidentes para el titular de la póliza.

Oferta exclusiva para miembros de los Colegios de Abogados del País Vasco, cónyuges e hijos, menores de 65 años. Ver condiciones generales de las pólizas. Precios 2013. R.P.S.: 143/12

RENOVACION LISTADOS COLEGIALES: ADMINISTRADORES CONCURSALES Y CONTADORES-PARTIDORES

Con motivo de la renovación para el próximo año 2014 de las listas colegiales de Administradores Concuriales y Contadores-Partidores, todo aquel que no se haya apuntado con anterioridad y quiera formar parte de las mismas, deberá comunicarlo en las oficinas colegiales remitiendo un es-

crita por cada una de las listas en las que interese ser incluido, antes del 29 de Noviembre del corriente año.

Os recordamos que los requisitos para poder formar parte de las listas son:

- Administradores Concuriales: cinco años de ejercicio efectivo de la pro-

fesión, así como acreditación de la formación recibida en la materia, especialmente la impartida por el ICASV.

- Contadores-Partidores: más de dos años de ejercicio o más de uno si se está en posesión del diploma de la Escuela de Práctica Jurídica.

FRANKFURTEKO ABOKATUEN ELKARGOAREKIN HITZARMENA



Pasa den irailaren 6an gure Bazkunak lankidetzeta hitzarmen bat sinatu zuen Frankfurteko abokatuen elkargoarekin.



RESTAURANTE

ZARATE

José Luis Alegre - Abokatua

Jatetxe berri bat irekitzean, lokalaren kokapena soilik aldatu arren, gomendagarria da beti, horri buruzko iritzi azkarrik sortu aurretik, zeharkaldiak gurutzaldi-abiadura hartu arte itxarotea. Hori gutxi gorabehera urtebeteko itsasaldiaren ostean gertatu ohi da. Une horretan baloratu dezakegu establezimenduko arduradunen lana eta ahalegina, gure balorazioan akatsik egiteko beldurrik gabe.

Prestaketa horietan, lehengai bikainek biribildu egiten dute gozoki horien azken emaitza. Neurri handiagoko piezei dagokienez, ia-ia ziur ez gara okertuko, edozein aukeraturata ere, arrakasta bermatuta baitago. Gure bisitetan bisigu ahogorriaren, erreboiloaren –basatia, noski-, meroaren edo lupiaren ale oso duinak aurkitu ditugu, erreketak-puntu egokian, baita bakailaoa txirlekin lapa zopan plater txalotua



**Licenciado Poza, 65
Bilbao
Tel. 944416521
665707515.
www.zaratejatetxea.com**

Menús 45 - 60€

**Carta 50 - 70€
(sin vino)**

Zarate jatetxeak gure hiriburuan atek ireki zituen bi mila eta hamaikako otsailean. Aurretik Lekeition egon zen. Arduradunak, Sergio Ortiz de Zaratek, erakusten du lokal haren oinarriak eta inspirazioa indarrean daudela lokal honetan ere. Izan ere, sukaldeko bandera-ontzia portura iritsi berri diren arrainak dira orain ere; arrain horien artean, zaporeari eta neurriari erreparatuz bezeroei eskaintzeko modukoak direnak soilik hautatzen dira. Baina haragi bikainak ere ezin ditugu ahaztu, eta horiei buruz aurrerago hitz egingo dugu.

Jatetxeko kartak pozik utziko ditu jankide tradizionalenak zein konbinazio apur bat ausartak dastatu nahi dituztenak. Plater batzuk zein besteak guztiz goraiatzeko modukoak dira. Gure gastronomiako plater finkatuen artean, Zaraten nabarmentzekoak dira Kantauri itsasoko antxoak gaziak, ahosabaia gazitasunez eta itsas indarrez betetzen dutenak, ehundura krokante ezin hobearrekin, eta galiziar txirla zoragarriak –neurriari eta zaporeari erreparaturata- plantxan, esentzia guztiak dastatzeko prestatuak, zurrupatze lotsagaberen bat egin dezakegun arren. Beste aldean, eta itsasoko produktuak gustuko dituztenentzat, hauek aurki ditzakegu: hegaluze-tatakia wasabi guacamolearekin, piperrinarekin eta soja erredukzioarekin; otarrainka tartarra, oliba-oliozko eta kezko baratxuri zuriarekin; eta hegaluze-carpaccio oliba beltzekin eta kaparrek.

ere. Haragiei dagokienez, urteetan dastatutako azpizun piezarik onenaren aurrean egon ginela esan dezakegu, osoa ahosabaian, sendoa, ehundura ia gurintsuarekin, aitzoaren aurkako ahoarekin mozteko gai izan ginena. Nola ez, galiziar behiaren entrekota edo txuleta ez da atzean geratzen, ezta behi-tripaki eta –muturrak ere bizkaitar saltsarekin Bakioko txistorrarekin.

Azkenburukoei dagokienez, gaur egungo gustu eta prestaketetara egokitutako lantze tradizionalak aurki ditzakegu, hala nola ardi-esnearen gatzatua, etxeko jogurta ahabiekin –ikaragarria da ahabien izozkia- edo %100 txokolate zoragarria; horietan, zaporeak inolako mozorrorik gabe ateratzen dira, arintasun perfektua dute, bazkari guztiz egokia amaitzeko.

Amaitzeko, Roberto García maitrearen eginkizun garrantzitsua nabarmendu behar da, jangelako zerbitzuan zein ardo-kartari begira. Karta bikaina dela esateko eskaintza apur bat urria den arren, ardo bikain eta ezkuak aurkituko ditugu, naziokoak zein mugaz gaindikoak.

Azken finean, luxu gastronomikoa Bilbo erdialdeko lokal batu eta epelean. Jatetxeak bezero leialak ditu, eta horiek saritu egiten dituzte goi-gastronomiaren bila jatetxean erabilitako dedikazio eztabidaezina eta sakrifizioa.

¿QUÉ ESTÁ HACIENDO EL DEPARTAMENTO DE JUSTICIA POR EL USO DEL EUSKERA? ¿QUÉ PODEMOS HACER LOS ABOGADOS?

ZER EGITEN ARI DIRA JUSTIZIA SAILETIK EUSKARA SUSTATZEKO? ABOKATUOK ZER EGIN DEZAKEGU?



Xabier Balerdi, Nazario Oleaga eta Jon Arturo Uriarte

El pasado 13 de septiembre se celebró en la sede del Colegio de Abogados una jornada sobre la situación del euskera en la Administración de Justicia. Lógicamente la actuación de los abogados en este tema es fundamental y ésta fue una de las ideas repetidas a lo largo de la jornada.

La presentación del acto correspondió al Decano de nuestro Colegio, D. Nazario Oleaga. Como coordinadora de la Jornada actuó Dña. Elixabete Piñol, miembro de la Comisión de Euskera del Colegio.

En primer lugar intervino D. Jon Arturo Uriarte, Director para la Modernización de la Administración de Justicia del Gobierno Vasco. La primera idea que desgranó fue que una sesión similar se había desarrollado en el mes de mayo en Donostia, en concreto, con los abogados guipuzcoanos.

A continuación, explicó el proyecto "Auzia euskaraz". Su objetivo es la tramitación íntegra de los procedimientos judiciales en euskera. Para ello, la participación de los abogados es ineludible. Por tanto, invitó a los concurrentes a que se sumaran al proyecto.

En segundo lugar intervino D. Xabier Belardi, técnico del

“

Se explicó el proyecto "Auzia euskaraz". Su objetivo es la tramitación íntegra de los procedimientos judiciales en euskera

”

“

"Auzia euskaraz" proiektua azaldu zen, honen helburua, justizia administrazioan, tramitazioa oso euskaraz egin ahal izatea da

”

eta egiteko dagoena azaldu zuen berak.

